

# ABE

Amara Berriko Egunkaria

39 zb.

2012ko otsailaren 13a



egileak:  
Ane, Zuriñe, Nora, Cecilia

## a g u r r a

Kaixo, lagunak:  
Hemen gaude  
Nora,  
Ane, Zuriñe eta  
Cecilia. Guk bi  
egunetan munduan  
izan den  
A.B.E.rik  
ikusgarriena  
egingo dugu.  
Espero dugu zuei  
ere gustatzea.  
Agur eta ondo  
pasa gure A.B.E.a  
irakurtzen



## MARRAZOI BALEA

Puerto Karatzin marrazoi balea aurkitu dute hilda. Bi grua behar izan dira igotzeko hama-bi metro baino haundiagoa zelako.

7.000 kg pixatzen zituen. Marrazoi balea saldu egin zuten hamahirumila eurotan.



## ALERTA LARANJA



**Alerta laranja gaude elurrarengatik.**

**Errepide asko elurrez beteak egon dira. Azken egun hauetan zero azpitik egon gara. Posiblea da beste egun batzuk horrela pasatzea**

## a u r k i b i d e a

- 1.- portada: Marrazoi balea eta alerta laranja
- 2.- inkesta: Zein podere edukiko zenuke ahal bazenu?
- 3.- elkarrizketa: Ana eta lue
- 4.- kontu kontari: Asmakizuna
- 5.- gu ere idazle: Elkarrizketa
- 6.- lumaren kilima: Nire gai gogokoena
- 7.- saski naski: Gurutzegrama
- 8.- denborapasak: Odd one out

# GIMNASIA ERRITMIKOA

Otsailak 12, bidebietako polikiroldegian, Amara Berriko eskolak Gimnasia Erritmikoko erakustaldi bat antolatu zuen, Ferrerias eta Morlanseko ikasleak parte hartu zuten. Polikiroldegian -2 Cº egon ziren, eta ez zen suspenditu. Ikasleak hotz asko pasa zuten.



## I N K E S T A

**Zein podere edukiko zenuke ahal bazenu?**



**ADRIAN :**  
Gauzak azkar egitekoa.



**DANIEL:**  
Lurra poderea edukitzea.



**IXEIA:**  
Hegan egitea.



**IBONE:**  
Hegan egitea.



**IZASKUN:**  
Gosea bukatu eta bakea lortzekoa.



**JON:**  
Tximista poterea edukitzea.



**LEIRE:**  
Inbisiblea izatea.



**OLAIA:**  
Inbisiblea izatea.



**NAIARA :**  
Hegan egitea.



**MARE:**  
Inbisiblea izatea.

**Inkestaren emaitza:**

**Jende gehienak ikustezina izan eta hegan egin nahi du.**

# E L K A R R I Z K E T A

## LIDE



- 1-Zertaz mo-zorrotuko zara?  
Sorpresa
- 2-Desfilean aterako zara?  
Bai
- 3-Inauterietan nonbaitera joango al zara?  
Ez
- 4-Zein da zure lagunik onena?  
Ane I
- 5-Zein abesti gustatzen zaizu?  
Lead the way
- 6-Zure lagunekin joango zara desfilea ikustera?  
Ez, desfilean aterako naizelako
- 7-Zein da zure pelikularik gustokoena?  
Titanic
- 8-Zein klase da zure gustokoena?  
Soinketa

## IUNE



- 1-Zertaz mo-zorrotuko zara?  
Sorpresa
- 2-Desfilean aterako zara?  
Ez
- 3-Inauterietan nonbaitera joango al zara?  
Ez
- 4-Zein da zure lagunik onena?  
Leire
- 5-Zein abesti gustatzen zaizu?  
Como tu no hay dos.
- 6-Zure lagunekin joango zara desfilea ikustera?  
Bai
- 7-Zein da zure pelikularik gustokoena?  
Titanic
- 8-Zein klase da zure gustokoena?  
Plastika eta soinketa.

# e g u r a l d i a

## Euritsu



**Temperatura:**5°

**Euria:** bai

**Haizea:**ez

**Presioa:**

**Gaurko prebisioa:** euritsua

**ESAERA ZAHARRA:**gezurra esan nuen Getarian, ni baino lehenago zen atarian

## Asmakizuna

Lehenengo guk eramaten genuen

gizon gainean.

Orain berak garamatza

autoaren barnean.



ABE hitza aurkitu  
Portadakoak ez du balio



## ELKARRIZKETA

H: Kaixo

X: Kaixo

H: Nor zara zu?

X: Ni Xiang naiz, eta zu?

H: Ni Haojie naiz. Nongoa zara?

X: Ni Txinakoa naiz eta zu?

H: Ni ere txinakoa naiz. Zenbat urte dituzu?

X: Nik hamaika urte ditut, eta zu?

H: Nik hamar urte ditut. Non bizi zara?

X: Donostian bizi naiz, eta zu?

H: Ni ere Donostian bizi naiz. Norekin bizi zara?

X: Aitarekin amarekin eta arrebarekin bizi naiz eta zu?

H: Aitarekin, amarekin eta ahizparekin bizi naiz.

Zer gustatzen zaizu egitea?

X: Musika entzutea eta marraztea gustatzen zait, eta zuri?

H: Telebista ikustea eta moztea gustatzen zait.



# Lumaren kilima

3 . z i k l o k o l a n a k

## Nire gai gogokoena Kanariar uharteak

Gaia:

Kanariar uharteak.

**TENERIFE:**

Tenerife da Kanariaretako uharterik handiena, 2.034,380km<sup>2</sup> ko azalera du, 906.854 biztanle daude eta hiriburua, "Santa Cruz" da. Tenerifek 2 Aireportu ditu, Tenerife Iparra eta Tenerife Hegoa aireportuak. Han Teide deitzen den mendi bat dago, 3718m neurtzen du eta Espainiako punturik altuena da. Hango klima beroa da eta euri gutxikoa, beraz, ur gutxi behar duten landareak daude han. Gainera Kanarietan Donostian baino ordu bat atzeratua dago.

**KANARIA HANDIA:**

kanaria handia da bigarren uharterik handiena, 1.560km<sup>2</sup> ko azalera du, 807.049 biztanle ditu gutxi gora behera eta hiriburua, " Kanaria Handiko palmak" da. Aireportua uharteko hiriburutik 18kmko distantziara dago.

Kanaria Handiko erdialdean mendi bat dago, baina ez dakit nola deitzen den. Hango klima oso ona da, baina berdegune asko daude.

**FUERTEBENTURA:**

Fuertebentura da hirugarren uharterik handiena, 1.659km<sup>2</sup> ko azalera du 86.642 biztanle ditu eta hango hiriburua "Rosarioren Portua" da. Fuertebenturako aireportua hiriburutik 5 km-ra dago. Fuertebenturan sumendi asko daude, Adibidez: Hondarrezko mendia, Bayuyo, Bermeja mendia...

Hango klima oso ona da eta hondartza asko daude.

**LANZAROTE:**


Lanzarote uharte ertaina da, 845,93km<sup>2</sup> ko azalera du ,141.938 biztanle ditu eta hiriburua "Arrecife" deitzen da. Lanzaroteko aireportua hiriburutik 5 km-ra dago. Han 300 sumendi daude, Timanfaya deitzen den parke nazionala dago eta parkearen barruan gameluak. Klima oso ona da, ia lur guztia errautsa da eta hondartza batean laku berde bat dago.



# Saski Naski

• • • z i k l o k o l a n a

## GURUTZEGRAMA



**Bertikala:**

**A:** Gararen antonimoa

**Horizontala:**

**1-**Gure gelan dagoen mutil baten izena

**2-**Afrikara joaten den hegaztia

**3-**Ugaztuna den eta haragi jalea den animalia

**4-**Santo Tomas egunean zozketa egiten den animalia potoloa



*egilea: Beñat ugarte*



ABE hitza aurkitu  
Portadakoak ez du balio

ODD ONE OUT

Tenesee      France      Egg      Nevada

Red      Green      Purple      Fat

Trendy      Lucky      Tomato      Sporty

Lemon      Tomato      Orange      Apple

